

2016 / 06

**BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE
PUBLIKOAREN ETA SAN TELMO MUSEOA, SA SOZietateAREN
LIBURUTEGIETARAKO BERARIAZKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN
BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTU BEHARKO DUENA**

- 1. KONTRATUAREN XEDEA**
- 2. ERREKERIMENDUEN SISTEMA**
- 3. KONTRATUA GAUZATZEKO ATXIKI BEHARREKO PERTSONALAREN
FUNTZIOAK ETA PROFILAK, EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO
KLAUSULEN AGIRIKO 12. KLAUSULAREN ARABERA**
- 4. LANTALDEA**
- 5. LAN PLANA ETA METODOLOGIA**

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA SAN TELMO MUSEOA, SA SOZIETATEAREN LIBURUTEGIETARAKO BERARIAZKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTU BEHARKO DUENA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honen xedea da DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOARI eta SAN TELMO MUSEOA, SA sozietateari egun atxikita dauden eta etorkizunean atxikiko diren liburutegietan berariazko zerbitzuak egiteko enpresa bat hautatzea, agiri honetan eta baldintza teknikoaren agirian ezarritakoaren arabera. Zerbitzu horiek jarraian adierazten diren lotetan banakatzen dira.

Erakunde horiei egun atxikitako liburutegiak hauek dira:

- Udal Liburutegi Nagusia (Alderdi Eder)
- Sail Historikoa (Konstituzio Enparantza)
- Udal Liburutegi Nagusia, Haur Saila (Fermin Kalbeton)
- San Telmo Museoa
- Aiete
- Casares Tomasene (Altza)
- Egia
- Ernest Lluch (Amara)
- Intxaurren Berri
- Larratxo
- Larrotxene (Intxaurren)
- Loiola
- Lugaritz (Antigua)
- Okendo (Gros)
- Damen Bateria (Urgull)

1. sorta.-

1.1. Erregistro berriaren katalogazioa eta sailkapena

Datuen katalogazioa, sailkapena eta sarrera. Funtsek bere baitan hartuko dituzte: funts historikoaren dokumentuak eta funts berriaren dokumentuak, edozein euskarritan eta edozein luzeratakoak, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan gaien alfabetikoa eskatzen dutenak.

1.2. Paperezko ISBD fitxa daukaten dokumentuen datuen katalogazioa eta sailkapena

Paperezko ISBD fitxa daukaten dokumentuen datuen katalogazioa eta sarrera. Horiei erantsi behar zaie Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako gaien alfabetikoa: Liburutegi Nagusiko funts bibliografikoen funtsei dagokie (horiek gordailuetan daude jasota eta dagozkien fitxak fitxategi orokorretan sartuta daude). Liburu horiekin lan egiteko prozesuak aurretiaz eskatzen du fitxa eta liburua bilatzea eta lanlekura lekualdatzea (eraikinaren 3. solairua, Konstituzio plaza, udal liburutegien sareko zerbitzu tekniko nagusien bulegoa) eta, ondoren, liburua bere lekuan berriz ere ipintzea.

Gaien alfabetikoak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan sartuko dira.

1.3. Gaien alfabetikoa behar ez duten edo sailkapena alde aurretik adierazita duten dokumentuen datuen katalogazioa eta sarrera

Oro har, funts berria da –batik bat, haurrentzako funts osoan jasotako literatura liburuak eta zinemako DVDak, edozein formatutan (liburua, DVDa, CDa, euskarri elektronikoa...–, gaien alfabetikorik behar ez duena edota sailkapena aurretiaz adierazita daukana. Erregistro batzuetan, laburpen oharra eskatuko da. Literatura erregistroetan, laburpen oharra eskatuko da beti.

1.4. Absynet 2.0 aplikazioan autoritateak egokitu, berrikusi eta sortzea

Asmoa ez da erregistro osoa berriro katalogatzea, baizik eta T100, T600. T610, /611, T650 eta T651 etiketak, eta T700, T710 eta T711 etiketak baliozkotzea. Horiek Amicus izeneko liburutegiak kudeatzeko sistema integratutik datozen erregistroak Absynet 2.0 bertsioko liburutegiak kudeatzeko sistema integratuta aldatzearen ondorio dira; 2.0 bertsioko Absynet sistema egun erabiltzen duen Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen katalogoarekin bat egin ondoren.

Kasu batzuetan, beharrezkoa izango da goiburua berrikustea. Bikoiztutako erregistro publikoak ezabatuko dira (baleude); betiere, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen katalogoaren koherentziari erreparatuz.

Egun, udal liburutegi sareak 3.5.3 bertsioko AMICUS informatika aplikazioa erabiltzen du. Aplikazio horrek MARC 21 kodeak eskatzen ditu datuak sartzeko. Egun indarrean dauden Kultura Ministerioaren Reglas de catalogación-ei – "Katalogazio arauak" euskarazko itzulpenean (2008)– jarraituko zaie. Katalogazio maila, gutxienez, katalogazio arauetan adierazitakoen 2.a izango da. Era berean, Zerbitzu Tekniko Nagusiek prestatutako katalogazio arauari jarraituko zaie, baita Kultura Ministerioaren goiburu zerrendari –gaztelaniarako (1995)– eta Eusko Jaurlaritzarenari –euskararako– ere. Hori guztia eskuragarri egongo da Zerbitzu Tekniko Nagusietan.

Kasu guztietan, katalogoaren koherentzia bermatu beharko da. Horretarako, beharrezko aldaketa guztiak egingo dira. Gaien alfabetikoak Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan sartuko dira.

2016an, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen katalogoarekin bat egitea aurreikusi da (ez dago data zehatzaren berri). Bat egitea gauzatu ondoren, Absynet 2.0 informatika aplikazioan katalogatuko dira erregistroak (aplikazio hori Eusko Jaurlaritzako Ondare Zuzendaritzak kudeatzen du). Aipatutako aplikazioak, halaber, MARC 21 formatua ezagutzea eskatzen du. Katalogazio eskuliburuak eskuragarri egongo dira Zerbitzu Tekniko Nagusietan eta Eusko Jaurlaritzaren web orrian, liburutegien zerbitzuan (<http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-lz/es>).

1. loteko zerbitzu horiei dagokienez, hileko gutxienez 400 erregistro exijituko dira.

Lanaren garapenean, ziurtatu beharko da Katalogoan dagozkion erregistroak sartzea, Liburutegi Zerbitzuko Unitate Tekniko Zentralak finkatutako kadentziaren eta baldintzen arabera.

Unitate Tekniko Zentraleko pertsonala arduratuko da egindako erregistroen kalitate gainbegiratu eta ebaluatzeaz.

2. lotea.-

2.1. Liburutegiko zeregin osagarriak

- Jendeari arreta egitea liburutegiaren zerbitzuetan edo jardueretan. Helburua da premia bereziak eta zenbaitetan ezustekoak estaltzea, eta denetariko zereginetan laguntza ematea; adibidez: zentro bat irekitzea; hainbat jarduera edo zerbitzu (edo antzeko bestelakoak) abian jartzea; eta, baita ere, larunbatetan eta zubietan liburutegiak irekitzen laguntzea.
- Datu baseetan dagoeneko dauden erregistro datuak sartzea: ale berriei alta ematea.
- Funtsak prestatzea: dokumentuak jendearentzat eskuragarri jartzeko beharrezko zeregin guztiak (bizkar etiketak jartzea, zigilatzea, azala jartzea, lapurretaren aurkako babesa ipintzea, etab.).
- Datuak denetariko informatika euskarritan sartzea: Word, Libreoffice, Excell, EKI, etab. Eta antzeko zerrendak edo zereginak egitea.
- Oro har, liburutegi zerbitzuaren jardueretatik ondorioztatzen diren denetariko zeregin osagarriak.

2.2. Liburutegiko zeregin teknikoak

Denetariko liburutegi teknikak, zerikusia dutenak bai funtsekin (prozeduren eskuliburuak hautatu, berrikusi, antolatu eta egitea; xahutze lanak egitea; biltegi bibliografikoen funtsak antolatzea; etab.), bai zerbitzuekin (zerbitzu berriak antolatzea, memoriak eta estatistikak egitea, katalogoak diseinatzea, etab.); bai jardueren kudeaketarekin (Urgulleko Udako Liburutegia, Liburu Azoka).

Bi lotei (1.a eta 2.a) dagokienez, zerbitzuak DONOSTIA KULTURAK eskatuta egingo dira. Ondorio horietarako, zerbitzu eskaerak ahalik eta aurrerapen handienarekin egingo ditu DONOSTIA KULTURAK. Dena dela, enpresa esleipenduna(k) behartuta egongo d(ir)a gutxienez 48 orduko aurrerapenaz egiten diren eskaera guztiei erantzutera.

Lizitatuzaileek lote baterako edo nahi dituzten guztietarako eskaintzak aurkeztu ahal izango dituzte.

SPKLTBaren II. eranskinaren 26. kategoriak aipatzen dituen zerbitzuen artean dago kontratuaren helburua.

2. ERREKERIMENDUEN SISTEMA

Kontratuaren xede diren zerbitzuak DONOSTIA KULTURAK dagokion lotearen esleipendunari errekerimenduan posta elektronikoz bidalitako errekerimenduan adierazten dizkion datetan, lekuetan eta ordutegian egingo dira (dagokion jarduera hasi baino gutxienez 48 ordu lehenago bidaliko dio errekerimendua). DONOSTIA

KULTURAK, era berean, zerbitzurako zenbat langile beharko dituen jakinaraziko dio esleipendunari errekerimendu horretan. Xede horretarako, enpresa esleipendunak helbide elektroniko bat adierazi beharko du (urteko 365 egunetako 24 orduetan eraginkor egongo da).

2. loteari dagokionez, lizitatzailleek aukera izango dute euren eskaintzetan jardueraren hasierarekiko 48 orduko gutxieneko aurrerapena (DONOSTIA KULTURAK dagokion errekerimendua egitekoa) murrizteko.

Behin errekerimendua egin eta gero, lotearen esleipendunak errekerimendua iritsi zaion bitarteko bera erabiliko du erantzuna emateko. Zerbitzua egingo dela baieztatuko da eta zerbitzua bete duten pertsonen izen-abizenak eta NANA adieraziko dira. Jakinarazpen hori zerbitzua eskaintzen hasi baino 24 ordu lehenago bidaliko da.

Presaren dela-eta DONOSTIA KULTURAK errekerimendua 48 ordu baino gutxiagoko aurrerapenarekin egiten badu, telefonoz egingo da eta esleipendunak eskatzen zaizkion giza baliabideak jarriko ditu ahalik eta azkarren.

3. KONTRATUA GAUZATZEKO ATXIKI BEHARREKO PERTSONALAREN FUNTZIOAK ETA PROFILAK, EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KLAUSULEN AGIRIKO 12. KLAUSULAREN ARABERA

Kontratua gauzatzera atxiki beharreko pertsonalaren funtzioak eta profilak, ekonomia eta administrazio agiriaren **12. klausulan** adierazitakoaren arabera, honako hauek dira:

1. lotea:

1. Lantaldea:

Kontratatutak gutxienez **bi (2) lagun** atxiki beharko ditu kontratua gauzatzera (horiek klausula honetan adierazitako eskakizunak bete beharko dituzte).

2. Titulazioa:

Bi lagunek gutxienez graduko unibertsitate titulua edo diplomatura eduki beharko dute.

Titulazioa egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa: Unibertsitateak edo erakunde ofizial eskudunak luzatutako titulu ofiziala.

3. Hizkuntzak:

Bi lagunek gaitasuna izango dute dokumentuak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan katalogatzeko.

Egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa: enpresaren berriazko aitortzea, kontratuari atxikitako lagunek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan dokumentuak katalogatzeko gaitasuna dutela adieraziko duena. Ondorio horretarako, bi lagunek euskararen ezagutza eduki beharko dute, DONOSTIA KULTURAK

bidezkotzat jotzen duen moduan egiaztatu ahal izango dena (EGA maila edo baliokidea).

4. Esperientzia katalogazio bibliografikoan:

Bi lagunek gutxienez hiru urteko esperientzia izan beharko dute katalogazio bibliografikoan MARC 21 formatuan. Gainera, lan horiek etengabe egin behar izan dituzte esperientzia egiaztatzen deneko urteetako bakoitzean, behinik behin.

Egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- ✓ Egindako lanen zerrenda xehatua, gauzatutako zereginen deskribapena aurkeztuta (kontratuaren xedea, prozesu teknikoak, katalogatutako funtsen mota eta bolumena).
- ✓ Kontratuen iraupen zehatza (hasiera data eta bukaerakoa).
- ✓ Hirugarrenen ziurtagiria, zerrendatutako lanetarako pertsonaren presentzia eta partaidetza bermatuko dituen.

5. Pertsonalaren ibilbide profesionala

Bi lagunek gutxienez urtebeteko esperientzia izan beharko dute katalogazio bibliografikoan AMICUSen. Gainera, lan horiek etengabe egin behar izan dituzte urte horretan zehar.

Egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- ✓ Egindako lanen zerrenda xehatua, gauzatutako zereginen deskribapena aurkeztuta (kontratuaren xedea, prozesu teknikoak, katalogatutako funtsen mota eta bolumena).
- ✓ Kontratuen iraupen zehatza (hasiera data eta bukaerakoa).
- ✓ Hirugarrenen ziurtagiria, zerrendatutako lanetarako proposatu denaren presentzia eta partaidetza bermatuko dituen.

ONOSTIA KULTURAK lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko eskubidea erreserbatuta du.

2. LOTEA:

2.1. Liburutegietako zeregin osagarriak:

1. Lantaldea:

Kontratistak gutxienez **zazpi (7) lagun** atxiki beharko ditu kontratua gauzatzera (horiek klausula honetan adierazitako eskakizunak bete beharko dituzte).

2. Titulazioa:

Zazpi lagunetako hiruk, gutxienez, diplomaturaren edo erdi mailako unibertsitate tituluaren jabe izan beharko dute; eta gainerako hirurek Batxilergoko titulazioa izan beharko dute, behinik behin.

Titulazioa egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa: Unibertsitateak edo erakunde eskudunek luzatutako titulu ofizialak.

3. Hizkuntzak:

Zazpi lagunek gaitasuna izango dute zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egiteko.

Egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa: enpresaren berariazko aitortpena, kontratuari atxikitako lagunek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan zerbitzua egiteko gaitasuna dutela adieraziko duena. Ondorio horretarako, zazpi lagunek euskararen ezagutza eduki beharko dute, DONOSTIA KULTURAK bidezkoztat jotzen duen moduan egiaztatu ahal izango dena (PL2 maila edo baliokidea).

4. Esperientzia liburutegiko zeregin osagarrietan:

Zazpi lagunetako hiruk gutxienez bi urteko esperientzia izan beharko dute liburutegiko zeregin osagarrietan, eta beste hiru lagunek gutxienez sei hilabeteko esperientzia izan behar dute liburutegiaren esparruko eginkizun osagarrietan: liburutegiaren alorreko jendearentzako arreta; oinarrizko informazioa edo jarduera; dagoeneko badauden erregistroetako datuak sartzeari; ale berriei alta ematea; funtsak prestatzea, Word eta Acceseko datuak sartzeari; jarduerak kudeatzeko programak; etab.

Egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- ✓ Egindako zereginen deskribapena, kontratuaren xedea, horren iraupen zehatza (hasierako eta bukaerako datarekin).
- ✓ Hirugarrenen ziurtagiria, zerrendatutako lanetarako proposatu denaren presentzia eta partaidetza bermatuko dituen.

5. AMICUS programarekin liburutegiko lan osagarriak egiten izandako esperientzia:

Zazpi lagunetako bik gutxienez bi urteko esperientzia izan behar dute AMICUS programarekin liburutegiko lan osagarriak egiten.

Egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Egindako lanen zerrenda xehatua, honako hauek aurkeztuta:

- ✓ Egindako zereginen deskribapena, kontratuaren xedea, horren iraupen zehatza (hasierako eta bukaerako datarekin).
- ✓ Hirugarrenen ziurtagiria, zerrendatutako lanetarako proposatu denaren presentzia eta partaidetza bermatuko dituen.

2.2. Liburutegiko zeregin teknikoak edo dokumentalak:

Adierazitako zereginak egiteko enpresak atxikitako lagunen gutxieneko eskakizunak dira:

1. Lantaldea:

Kontratastak **gutxienez bi (2) lagun** atxiki beharko ditu kontratua gauzatzera (horiek klausula honetan adierazitako eskakizunak bete beharko dituzte).

Bi lagun horiek izan daitezke, halaber, aurreko 2.1 atalean ezarritako liburutegiko zeregin osagarriak betetzeko kontratua gauzatzearren kontratastak atxikitze konpromisoa hartzen dueneko lagunak.

2. Titulazioa:

Bi lagunek gutxienez diplomatura edo erdi mailako unibertsitate titulua eduki beharko dute.

Titulazioa egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa: Unibertsitateak edo erakunde eskudunek luzatutako titulu ofizialak.

3. Hizkuntzak:

Bi lagunek gaitasuna izango dute zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egiteko.

Egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa: enpresaren berariazko aitortpena, kontratuari atxikitako lagunek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan zerbitzua egiteko gaitasuna dutela adieraziko duena. Ondorio horretarako, bi lagunek euskararen ezagutza eduki beharko dute, DONOSTIA KULTURAK bidezkoztat jotzen duen moduan egiaztatu ahal izango dena (EGA maila edo baliokidea).

4. Liburutegiko zeregin teknikoetako esperientzia:

Bi lagunetako batek gutxienez bi urteko esperientzia egiaztatu beharko du liburutegiko zeregin teknikoetan.

Egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- ✓ Egindako lanen zerrenda zehatua, honako hauek aurkeztuta:
- ✓ Egindako zereginen deskribapena, kontratuaren xedea, horren iraupen zehatza (hasierako eta bukaerako dataekin).
- ✓ Hirugarrenen ziurtagiria, zerrendatutako lanetarako proposatu denaren presentzia eta partaidetza bermatuko dituen.

5. AMICUS programarekin egindako zeregin teknikoetako esperientzia:

Bi lagunetako batek sei hilabeteko gutxieneko esperientzia egiaztatu beharko du AMICUS programarekin egindako zeregin teknikoetan.

Egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- ✓ Egindako lanen zerrenda zehatua, honako hauek aurkeztuta:
- ✓ Egindako zereginen deskribapena, kontratuaren xedea, horren iraupen zehatza (hasierako eta bukaerako dataekin).
- ✓ Hirugarrenen ziurtagiria, zerrendatutako lanetarako proposatu denaren presentzia eta partaidetza bermatuko dituen.

DONOSTIA KULTURAK lizitatzailerak aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko eskubidea erreserbatuta du.

4. LANTALDEA

Kontratatutako kontratua gauzatzeko atxikiko duen lantaldeak (hau da, kontratatutako kontratua gauzatzeko atxikiko dituen giza baliabide guztiak, bai agiriaren **12. klausulan** eskatutakoarekiko atxikipen konpromisoan jasotakoak, bai agiriaren **12. klausula** horretan exijitutako gutxienekoarekiko izaera gehigarriaz kontratuari atxikitako giza baliabideak) jarraian adierazten diren eskakizunak bete beharko ditu.

Nolanahi ere, zerbitzuak egingo dituzten langileek beharrezko gaikuntza edukiko dute, agiri honetan adierazten diren baldintzen arabera.

Lote bakoitzean ezarritako lantaldearen baldintzak edozein direla ere (aurreko **4. klausulan** eta klausula honetan zehazten dira), enpresa esleipendunaren erantzukizuna izango da dagokion zerbitzua arretaz eta eraginkortasunez egiteko atxikitako langileek prestakuntza egokia jasotzea.

1. LOTEA:

- Lantaldeko kide guztiak gutxienez graduko unibertsitate titulua edo diplomatura eduki beharko dute.
- Lantaldeko kide guztiak gaitasuna izango dute dokumentuak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan katalogatzeko.

Ondorio horretarako, lantaldeko kide guztiak euskararen ezagutza eduki beharko dute, DONOSTIA KULTURAK bidezkotzat jotzen duen moduan egiaztatu ahal izango dena (EGA maila edo baliokidea).

2. LOTEA:

2.1. lotea: Liburutegietako zeregin osagarriak:

- Lantaldeko kide guztiak gaitasuna izango dute zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egiteko.

Ondorio horretarako, lantaldeko kide guztiak euskararen ezagutza eduki beharko dute, DONOSTIA KULTURAK bidezkotzat jotzen duen moduan egiaztatu ahal izango dena (PL2 maila edo baliokidea).

2.2. Iotea: Liburutegiko zeregin teknikoak edo dokumentalak:


- Lantaldeko kide guztiak gaitasuna izango dute zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egiteko.

Ondorio horretarako, lantaldeko kide guztiak euskararen ezagutza eduki beharko dute, DONOSTIA KULTURAK bidezkoztat jotzen duen moduan egiaztatu ahal izango dena (EGA maila edo baliokidea).

5. LAN PLANA ETA METODOLOGIA

DONOSTIA KULTURAK zehaztuko du lan plana, kontratuaren arduradunaren edo horrek eskuordetzen duen langile teknikoaren bitartez, betiere DONOSTIA KULTURAK egokitzat jotzen duen metodologiaren arabera. Metodologia horrek barnean hartuko du zerbitzuak egingo dituzten lagunen prestakuntza plana.

Donostian, 2016ko martxoaren 31ean



Jaime Otamendi Muñagorri
DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO zuzendari gerentea